

## ZUREZ ERAIKITAKO ONDAREA KONTSERBATZEKO PRINTZIPIOAK

*ICOMOSen onartuak Delhin (India) 2017ko abenduan egin 19. Batzar Orokorrean.*

### ATARIKOA

Dokumentu honetan jasoko diren printzipioen helburua “ZUREZKO EGITURA HISTORIKOEN KONTSERBAZIOA GIDATU BEHAR DUTEN PRINTZIPIOAK” gaurkotzea da. Aurretiko printzipio horiek ICOMOSek onartu zituen 1999ko urrian Mexikon egin 12. Batzar Orokorrean, eta ondoren, 2012an, horiek gaurkotzeko prozesua abiatu zen, Guadalajaran (Mexiko). Gaurkotze prozesuak segida izan zuen hurrena, Himejin (Japonia) lehenik 2013an, eta Falun-en (Suedia) ondoren 2016an.

Dokumentu honek Veneziako Gutuneko (1964), Amsterdamgo Adierazpeneko (1975), Burrako Gutuneko (1979) eta Egiaskotasunari buruzko Narako Dokumentuko (1994) printzipio orokorrak aplikatu nahi ditu, zurez eraikitako ondarearen babes eta kontserbazioaren inguruan UNESCOk eta ICOMOSek garatu doktrinekin batera.

Zurez eraikitako ondarearen babes eta kontserbaziora begira, dokumentu honen helburua da oinarritzko printzipioak eta praktika egokiak definitzea, nazioarteko ahalik eta kasu sortarik zabalena baliaturik eta ondare horrek duen kultur esangura kontuan hartuta.

“Zurez eraikitako ondarea” esanda, kultur esangura duten edo leku historikoen parte diren zurezko eraikin eta egitura mota guztiak aipatzen dira, tartean direla halaber aldi baterako egiturak, egitura higigarriak eta bilakaera bat dutenak.

Dokumentu honetako “balio” hitzak ondareak dituen balio estetikoak, antropologikoak, arkeologikoak, kulturalak, historikoak, zientifikoak edo teknologikoak aipatzen ditu. Printzipio horiek balio historikoa duten arkitekturari eta zurezko egiturei aplikatu dakizkie. Eraikin guztiak ez daude erabat zurez eraikita. Horregatik, beharrezko errespetua izan behar da zuraren eta eraikuntzako beste material batzuen arteko interakzioarekin.

Printzipioek:

- zurez eraikitako ondarearen garrantzia ezagutzen eta errespetatzen dute, horren egitura-sistemekin eta garai guztietako xehetasunekin batera, munduko kultur ondarearen partetzat;
- zurez eraikitako ondarearen aniztasun handia kontuan hartzen eta errespetatzen dute, horri lotutako ondare ukiezin guztiarekin batera;

- aitortzen dute zurezko ondareak agerian jartzen duela arotz eta eraikitzaileen trebetasuna, horiek duten kultur jakintza tradizional eta aspaldikoa bezalaxe;
- ulertzen dute kultur balioak etengabeko bilakaeran direla denboran zehar, eta aldi-aldi egiaztatu egin behar dela horiek identifikatzeko eta horiek benetakotzat jotzeko modua, pertzepzio eta jarrera aldakorrak egokitzen joatearren;
- tokian tokiko tradizioak, eraikuntza-jardunbideak eta kontserbazio ikuspegiak errespetatzen dituzte, betiere kontuan harturik kontserbazioaren arloan erabil daitekeen metodologia eta teknika sorta askotarikoa;
- historian zehar erabilitako zur espezie eta kalitate askotarikoak kontuan hartzen eta errespetatzen dituzte;
- aitortzen dute zurezko eraikuntzek informazio kronologikorako erregistro baliotsuak eskaintzen dituztela, eraikin edo egitura osoari dagokionez;
- kontuan hartzen dute zurak sismo egoerei aurre egiteko duen portaera bikaina;
- inguruneko eta klimako baldintzak aldatzen direnean zurezko egiturak kalteberak direla aitortzen dute; aldaketa horien eragileak besteak beste tenperatura eta hezetasunaren fluktuazioak izan daitezke, intsektu eta onddoen erasoak, erabiltzea eta hondatzea, sua, sismoak eta beste hondamendi natural batzuk, edota gizakiaren beraren ekintza kaltegarriak;
- aitortzen dute gero eta zurezko egitura historiko gehiago galtzen ari direla kalteberatasunagatik, erabilera desegokiagatik, lanbide, diseinu tradizionalaren gaineko jakintza eta eraikuntzako teknologien galeragatik, eta komunitate bizien behar espiritual eta historikoen gaineko ulerkuntzarik ezagatik;
- zurezko ondarearen babesean komunitateen partaidetzak duen garrantzia aitortzen dute, komunitateek gizarte eta ingurumeneko eraldaketetan duten harremanarekin eta garapen jasangarrian duten rolaekin batera;

## IKUSKATZE, DOKUMENTATZE ETA IKERTZEA

1. Egituraren eta bere alderdien egoera, aurretiazko lanak barne, arreta handiz erregistratu beharko dira, inolako ekintzatan hasi aurretik.

2. Esku hartze orok diagnostiko zehatz eta zorrotza beharko du aurretik. Diagnostiko horrekin batera eraikina eta egitura-sistema ulertu eta analizatu beharko dira, haren egoera eta edozein deskonposizio, egitura-kalte edo akatsen arrazoiak zein kontzepzio, dimentsio edo muntatze akatsak bezalaxe. Diagnostikoak ebidentzia dokumentaletan, ikuskapen fisikoan eta analisisian egon behar du oinarrituta, eta behar izanez gero, ezaugarri fisikoen gaineko neurketak egin beharko dira, entsegu ez suntsitzaileak baliatuta, eta beharra fortunatuz gero baita laborategiko entseguak ere. Horrek ez du, baina, kanpoan uzten maila apalagoko esku hartzeak egitea eta, behar den tokian, larrialdiko neurriak hartzea.

3. Baliteke, dena den, ikuskapena behar bestekoa ez izatea, fabrikako beste elementu batzuek egituraren egoera ezkututzen dutelarik hori ezin denean behar moduan ebaluatu.

Estalduraren garrantziak aukera ematen duenean, hori aldi batez kentzeko aukera aztertu ahal izango da, ikerkuntza ahalbidetzez; horretarako, baina, estalduraren erregistro osoa egin beharko da aurrez.

4. Antzinako zurezko elementuetan dauden marka "ikusezinak" (ezkutuak) erregistratu egin behar dira halaber. Marka "ikusezin" esapideak marka idatziak/sinadurak/eskribauen markak adierazten ditu, eta lanak obraratzeko unean (edo geroagoko konpontze-lanetan) arotzek erabilitako maila edo beste mota bateko markak, hau da, egitura ikusgarri egoteko asmorik gabe eginak.

## ANALISIA ETA EBOLUZIOA

5. Kontserbazioaren lehen helburua fabrika historikoaren benetakotasuna mantentzea da. Horrek barnean hartzen ditu fabrikaren beraren itxuraketa, materialak, mihiztadura, osotasuna, eta arkitektura eta kultura aldetiko ondare balioak, historian zehar izan dituen aldaketak errespetatuta. Horretarako, fabrika historikoaren izaera definitzen duten ezaugarri guztiak kontserbatu beharko dira, ahal den neurrian.

Izaera definitzen duten ezaugarrien artean ondoko elementuetako bat edo gehiago egon daitezke:

- a. egitura-sistema oro har;
- b. elementu ez egiturazkoak, hala nola fatxadak, bereizte elementuak, eskailerak;
- c. azaleraren ezaugarriak;
- d. arotzeriako apaindurako tratamenduak;
- e. tradizioak eta teknikak;
- f. eraikuntzako materialak, barnean harturik horien kalitatea (edo kategoria) eta ezaugarri partikularrak.

6. Izaera definitzen duten ezaugarri horien balioa zehaztu egin behar da, esku hartze plan bat, dena dela, formulatu ahal izatearren.

## ESKU HARTZEAK

7. Esku hartze prozesuko lehen estadio edo mailak eraikina kontserbatzeko estrategia orokor bat planteatzea jaso behar du. Tartean diren alderdi guztiek eztabaidatu eta adostu behar dute planteamendu hori.

8. Esku hartze estrategiak kontuan hartu behar ditu nagusi diren kultur balioak.

9. Egituraren jatorrizko eginkizuna mantendu edo lehengoratu egin beharko da, esku hartzeak zabalegia izan beharko lukeela-eta horrek egituraren benetakotasuna kaltetuko lukeen kasuetan izan ezik.

10. Esku hartzeetan egin daitezkeen lanak honakoak dira:

- a. Konponketa sinpleak, arotzeria tradizionalako teknikak zein horiekin bateragarriak diren lotze sistema modernoak erabiliz eginak.
- b. Egitura sendotzea, bai material eta teknika tradizionalak bai horiekiko bateragarriak erabiliz.
- c. Egitura osagarri bat sartzea, egungo egitura-karga arintzearen.

Aukeratzten den esku hartze mota eraikinaren kultur esangura ondoen babesten duen aukeraren arabera zehaztu beharko da.

11. Esku hartzeek, nagusiki:

- a. Egitura edo lekuaren egonkortasun fisiko eta estrukturala, epe luzera begirako iraupena eta kultur esangura bermatzeko behar diren gutxienekoak izan beharko dute;
- b. jardunbide edo praktika tradizionalen bidetik segitu beharko dute;
- c. itzulgarriak izan behar dute, teknikoki posible baldin bada;
- d. ez dituzte etorkizuneko kontserbazio lanak kaltetu edo eragotzi behar, horrelakoak egin beharra dagoenean;
- e. ez dute eragotzi behar agerian jarri diren eta eraikuntzari erantsi zaizkion ebidentzietara geroago iristeko aukera;
- f. kontuan hartu behar dituzte ingurumen baldintzak.

12. Esku hartzeek eraikuntzaren iraupena ziurtatzeko adinakoa den gutxieneko esku hartzearen irizpideari segitu behar diote, ahalik eta gehien babestuz betiere haren benetakotasun eta osotasuna, eta aukera emanez, horrenbestez, hark bere eginkizuna era seguruan betetzen jarraitzeko. Alabaina, horrek ez du eragozten egituraren zati bat edo egitura osoa desmuntatzea, baldin eta:

- a. tokian bertan eta elementu originaletan egindako konponketek esku hartze maila onartezina behar badute;
- b. egituraren distortsioak iritsi duen maila dela eta ezinezkoa bada hark izan behar duen egitura-portaera egokia lehengoratzea;
- c. lan osagarri desegokiak egin behar badira deformazio egoera horretan mantentzearen.

Desmuntatze-lan ororen inguruko erabakiak kultur testuinguru bakoitzean aztertu behar dira, eta eraikinaren benetakotasuna babestera egon behar dute bideratuta.

Gainera, erabakiek kontuan hartu eta ebaluatu egin behar dituzte desmuntatze-lanean zehar zurari zein mihiztadura eta lotura-elementuei (esaterako iltzei) eragin dakizkien kalte itzulezinak.

13. Dauden elementuak ahalik eta gehien kontserbatu behar dira. Elementu bat edo elementu baten parte bat ordezkatu behar denean, berriak errespetatu egin behar ditu egituraren izaera eta esangura. Beste egitura batzuetako eraikuntzako pieza zahartuak erabil daitezke esku hartzean, horrelako tradizioa baden kulturetan.

14. Elementu bat ordezkatzeko (zurezko) elementuei dagokienez, ahal delarik:

- a. originalaren espezie berekoak izan behar dute;
- b. originalak duen hezetasun maila bera eduki behar dute;
- c. ale-ezaugarri berberak izan behar dituzte alea ikusgarria den tokietan;
- d. originalean erabilitako esku langintzako metodo eta tresna berberak erabiliz landu behar dira.

15. Ordezkapenetan erabiltzeko zura ez da artifizialki zahartzen ahalegindu behar. Elementu berriek ez dute multzoaren estetika ahuldu behar. Ordezkatze elementuak tindatzea onar daiteke, originalen kolorearekin berdintzearen, tindatu ezean egituraren ulerkuntza estetikoa eta kultur esangura maila onartezinean kaltetuko liratekeen kasu zehatzetan.

16. Elementu edo elementu zati berriak markatu daitezke, modu ez nabarmen batean betiere, hain zuzen ondoren identifikatu ahal izan daitezen.

17. Baliteke balio espezifikoak kontuan hartu behar izatea zurez eraikitako ondare jakin baten kultur esangura ebaluatzeko, esaterako aldi baterako eraikinen eta eboluzioa dutenen kasuan bezala.

18. Esku hartzerik zertuz gero, zurezko egitura historikoa osotasuntzat hartu behar da. Material guztiek, hala nola egiturako elementuek, horma-atalek, ostateek eta leiho-oholek, sabai, zoru, ate eta leihoek eta abarrek, arreta bera jaso behar dute. Printzipioz, ahalik eta gehien kontserbatu behar dira dauden materialak, lehendik egindako konponketak bezalaxe horrek kalterik ez badakarkio egituraren egonkortasunari. Kontserbazioak akaberako materialak ere hartu behar ditu, hala nola igeltsuak, pinturak, luzituak, paper pintatua, etab. Material originalak, teknikak eta testurak errespetatu behar dira. Azalaren akaberak berritzeari edo ordezkatzeari zeharo beharrezko iritziz gero, material eta teknika bateragarriak erabiltzera jo beharko da, ahal dela.

19. Egitura-elementuak direnean, honakoak hartu behar dira kontuan:

- a. egitura batek portaera egokia baldin badu, eta erabilera, egungo egoera eta egitura-karga aldatzen ez badira, egitura behar beste erresistente egin daiteke, erresistentzia hori murriztu duten azken kalte eta hausturak konpondu/egonkortu hutsez;
- b. aldaketa berririk izan bada edo proposatutako erabilera-aldaketaren batek egitura-karga handiagoa eragiten badu, gainkargaren erresistentzia potentziala zenbatesteko egitura-analisi bat egin beharko da, edozein esfortzu sartzeko aukera baloratu aurretik.

20. Esku hartzeen xedeak ez du, inolaz ere, izan behar egiturak bete ahal izatea eraikuntzako kode modernoek jasotzen dituzten baldintzak.

21. Esku hartze guztiak justifikatu behar dira, erabilera eta egitura-printzipio sendoetan oinarrituta.

22. Ez da denboran zehar gertatu diren deformazioak, egitura mailan garrantzirik izan ez eta erabilerari zailtasunik eragiten ez diotenak, "zuzentzeko" ahaleginik egin behar, ahalegin horien helburu bakarra egungo gustu estetikoak asetzea denean.

## GAUR EGUNGO MATERIALAK ETA TEKNOLOGIA

23. Egungo materialak eta teknologiak zuhurtziarik handienez aukeratu eta erabili behar dira, eta bakar-bakarrik materialen iraunkortasun eta egitura-portaera eta eraikuntzako teknikak behar beste luzeko denboran zehar emaitza egokiz probatu direnean.

24. Zerbitzuak egituraren edo lekuaren esangura ukigarri eta ukiezina errespetatuz instalatu behar dira.

25. Instalazioak diseinatzeko unean, ingurune baldintza garrantzitsuetan, esaterako tenperatura eta hezetasunean, aldaketarik ez eragiteko moduan jokatu behar da.

26. Tratamendu kimikoen erabilera arretaz kontrolatu eta monitorizatu behar da, eta bakar-bakarrik onura ziurtatua izango den lekuetan erabili behar dira, segurtasun publikoa eta ingurumen segurtasuna kaltetzen ez direnean eta epe luzera begira hobekuntza nabarmena espero denean.

## ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIOA

27. Esku hartze eta tratamenduetan erabilitako material guztien erregistroa mantendu beharko da, Veneziako Gutunaren 16. artikuluekin eta ICOMOSek Monumentu, Eraikin Multzo eta Lekuak Erregistratzeko jasoak dituen printzipioekin bat. Dokumentu garrantzitsu guztiak, soberako materialen edo egituratik kendutako elementuen lagin nagusiak barne, beharrezko gaitasun eta teknologia tradizionaleri buruzko informazioarekin batera, bildu, katalogatu eta era seguruan eta irisgarrian biltegiratu behar dira, kasuan-kasuan dagokion moduan alegia. Dokumentazioak jaso egin behar ditu, halaber, kontserbazio lanerako material eta metodologiak aukeratzean kontuan hartu diren arrazoi zehatzak.

28. Lehengo dokumentazio guztia kontserbatu behar da, bai eraikina etorkizunean mantentzeko bai erregistro historiko gisa.

## JARRAIPEN ETA MANTENTZEA

29. Aldian aldiko jarraipenerako eta mantentze-lan arruntetarako estrategia koherentea ezarri behar da, esku hartze zabalagoen beharra atzeratzeko eta zurez eraikitako ondarearen eta horrek duen kultur esanguraren babes jarraitua bermatzeko.

30. Jarraipena esku hartze orotan zehar eta ondoren egin behar da, erabiltzen diren metodoen eraginkortasuna egiaztatzeko eta zurak eta erabilitako beste edozein materialek epe luzean duten portaera ziurtatzeko.

31. Mantentze- eta jarraitze-lan ororen erregistroak egituraren historia dokumentalaren partetzat gorde behar dira.

## BASO HISTORIKOETAKO ERRESERBAK

32. Zurezko egiturak egoera ahulean egon daitezke, baina artean ondare bizi baten parte izaki ekarpena egin diezaiokete gizarteari. Horregatik, zur egokiak eskura izatea funtsezkoa da horrelakoak kontserbatzeko. Beraz, aitortu egin behar da baso erreserbek horrelako zurezko egituren mantentze eta konpontze ziklo iraunkorretan betetzen duten eginkizun funtsezkoa.

33. Monumentu eta lekuen kontserbazioaren ardura duten erakundeek sustatu egin behar dute jatorrizko baso erreserbak babestea eta zur onduzko biltegiak ezartzea, egokiak baitira, inolaz ere, zurezko ondare eraikia kontserbatzeko eta konpontzeko. Politika horrek aurreikusi egin behar du behar bezala lehortutako zurezko elementu handiak beharko direla etorkizuneko konponketetarako. Alabaina, politika horiek ez dute egitura historikoetako benetako elementuen ordezkatzeko estentsiboa sustatu behar, baizik eta erreserba bat eratzea, maila txikiagoko konponketa eta ordezkatzetarako.

## HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

34. Funtsezkoa da zurezko arkitektura historikoaren eraikuntzan erabilitako ezagutza eta trebetasun tradizionalak erregistratzea, babestea eta berreskuratzea.

35. Hezkuntza programak funtsezko alderdia dira zurezko ondarearen gainean sentiberatzera begira, horien balioak eta kultur esangura aitortzea eta ulertzea sustatzen baitute. Programa horiek kontserbazio eta garapen jasangarriko politika baten oinarria dira. Estrategia oso eta jasangarri batek toki, eskualde, nazio eta nazioarte mailak bildu behar ditu, eta funtzionario, irakasle, lanbide, komunitate eta bestelako alderdi interesdunak hartu barnean.

36. Ikerkuntza programak sustatu behar dira (eskualde mailan bereziki), zurez eraikitako eraikinen, lekuen eta ondarearen ezaugarri bereziak eta alderdi sozial eta antropologikoak identifikatzeko.

## GLOSARIOA

**Eraikuntza:** materialak antolatzen, mihizatzen eta osotasun batean batzen diren modua<sup>1</sup>; eraikitzea bera; gauza eraikia (ikusi, halaber, "egitura", behean).

**Kultur esangura:** egitura edo leku batek joandako belaunaldientzat, egungoentzat edo etorkizunekoentzat dituen ondare balioak, estetika, historia, arkeologia, antropologia, zientzia, teknologia, gizarte eta espiritu aldetikoak zein beste ukiezin batzuk.

**Eboluzioa duen eraikuntza:** bizimodu tradizional bati estu loturik egungo gizartean eginkizun sozial aktiboa mantentzen duena, eta eboluzio edo bilakaera prozesua oraindik ere garatzen ari dena.

---

<sup>1</sup> Ching, Francis D K (1995) *A Visual Dictionary of Architecture*. New York: John Wiley & Sons.



**Fabrika:** egitura edo lekuko material fisiko oro, barnean harturik osagaiak, osagarriak, edukiak eta objektuak. Eraikuntza<sup>2</sup>.

**Ondare ukiezina:** zurez eraikitako ondarearen sorrera eta erabilerarekin lotutako prozesu tradizionalak.

**Sendogarria:** elementu, elementu multzo edo egitura baten egitura aldetiko eraginkortasuna areagotzeko garatutako ekintzak.

**Konponketa:** zurez eraikitako ondare bati dagokionez, multzoaren parte gisa egitura-eraginkortasuna edo osotasun estetikoa berreskuratzea edota osatzea zuzendutako ekintza oro. Fabrika historikoan esku hartze zehatza egitea eskatzen du horrek, betiere bakar-bakarrik alderdi hondatuak aldatzeko xedearekin edo, bestela, egitura eta materialak ukitzeke uztearren.

**Egitura:** osotasun gisa funtzionatzeko diseinatu eta eraikitako elementu multzo egonkorra, kargei eusten diena eta karga aplikatuak lurreraino eta segurtasunez transmititzen dituen<sup>3</sup>.

**Aldi baterako egitura:** zeremonia edo beste kultur jarduera edo jarduera nazional batzuen partetzat aldian-aldian eraikitzen, erabiltzen eta desmuntatzen den egitura, tradizioak, eskulangintza eta jakintza tradizionala jasotzen dituen<sup>3</sup>.

---

<sup>2</sup> R.A.E.

<sup>3</sup> Ching, Francis D K (1995) *A Visual Dictionary of Architecture*. New York: John Wiley & Sons.